AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

715

120/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Antonio Gonzalez Moyano jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 22ko 436/1993 Ebazpenaren bidez (apirilaren 30eko EHAA, 79. zk.), Antonio González Moyano jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Antonio Gonzalez Moyano jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari kargutik kentzea, egindako zerbitzuak eskerturik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Barrualdeko Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.